

INGELESIA: Do you want to speak english?

Askok harridura-aurpegia ipiniko baduzue ere, Elgoibarko Izarra hasi zen ingelesa irakasten gure herrian. Harrigarria dirudien arren, euskararen aldeko elkarte batek eman zituen gure herrian ingelesa irakasteko lehen pausoak.

Baina, ondo pentsatuz gero, ez da harritzekoa. Izan ere, zenbat eta hizkuntza gehiago ezagutu, orduan eta gehiago estimatzen baita norberarena. Eta, alderantziz ere bai, zenbat eta gehiago maitatu norberaren hizkuntza, orduan eta gehiago baloratzen dira gainontzekoak.

Ikastola sortu eta hiru-lau urtera hasi ziren ingelesa irakasten ikastolako umeei. Gaur egun hamaika partikular eta akademia dago ingelesa erakusteko deseatzten, baina sasoi hartan (1966an) Elgoibarren ez zegoen ingelesa ikasteko aukerarik.

Ikastolak zuen eskaintza handitu eta aberasteko hasi zen Elkartea ingelesa irakasten; umeak ikastolara erakartzeko gantxo moduan. Ikastolako arduradunak Donostian zegoen Colegio Inglesera joan ziren ingelesa nola eman zitekeen ikusi eta ikastera. Eta han ikusi eta ikasitakoarekin hasi ziren ikastolan ingelesa ematen.

Hasieran, ingelesa ez zen asig-natura moduan ematen, ikastolako orduetatik kanpo ematen zen, iluntzetan. Ikastolako ume guztiei irakasten zitzairen baina ez zuten azterketarik edo antzerakorik egin behar. Geroago bai, ingelesa ikasgai bat gehiago izatera pasa zen.

Mari Angeles Kortabitarte elgoibartarra izan zen estreinako andereñoa ingelesa irakasten.

Ikastolak zuen eskaintza handitu eta aberasteko hasi zen Elgoibarko Izarra ingelesa irakasten; umeak ikastolara erakartzeko gantxo moduan.